

## Martin Ugalderekin hizketan

S. Salaberri

*Egin*, 1987-05-03.

"Euskaldunek hitza" saio bikainaren presentatzailea da Martin Ugalde euskal idazle iaioa. Barandiaran, Lekuona, Mitxelena, Iratzeder, Eizmendi eta asteazkenero ikusi ditugun beste guzti horiena. Hogeita hamabost urte egin ditu Euskal Herritik urruti, halere euskaldun jarraikia, hezur eta mami euskaldungoaren alde ari den euskaltzale suhar, idazle jori, "izpiritu" paregabea.

Euskal Herriaren historian, honela edo bestela, eragin handia izan dutenen dokumentu bibliografikoa da "Euskaldunek hitza" saioa. "Aspaldi honetan Euskal herriaren alde lerrenak egin dituztenen berri zehatza eman beharra zegoen" esan digu Martinek, "izan ere hemendik hamabost-hogeitabost urte barru etorriko diren euskaldunek garbi jakin behar dute halakoek eta bestelakoek zer egin zuten gure euskal munduaren alde, nor ari izan zen etnografi sailean, nor hizkuntzarenean, nor historiarenean..."

Martin Ugalde andoaindarrak badu zernahi eginik: gerra zibilekoan gurasoak urruti eta bera beti borrokan, klandestinitatean Leizaolaren aholkulari, kazetaritza irakasten Venezuelan, Caracas hiriko euskal Etxeko lehendakari... liburu sail haundiaren egile. "Historia de Euskadi" bost tomo haunditan. "Hablando con los vascos" liburu apartak... Ez ditzagun guztiak aipa. Aditzera eman digunez, liburu berri mordo handia du buruan, noiz idatziko zain. Martinen ohoretan eta gure pozetan! Hirurogeita bost urte ditu eta "halako batean mahai gainean libururen bat idazten ari naizenean harrapatzea nahiko nuke izpirituaren hatsak", esan du.

Nola burutu ote ditu "Euskaldunek hitza" sailean sartzen diren euskal pertsonajeon bideoak? Martin Ibarbia, Koldo Izagirre eta Eresoinkako laguntza baliosoa izan du, alabaina bera izan da batarekin zein bestearekin elkarrizketa luzeak izan dituen. Bakoitzari berea, hori da legea. "Kazetari eta idazle izan naiz, behin baino gehiagotan hitzegina nintzen beroriekin. Ezagutzen ninduten. Bazekiten ez niela tranparik egingo komeni ez zitzaienik ez nuela harrotuko". Zintzo jokatu du beti eta, ordainetan, "sintzeritate" guztiarekin emandako erantzunak jaso ditu.

"Hamahiru pertsonaiaren berri bildu digu. Alberto Onaindia eta Piarres Larzabalen berri ere pozik bildu genukeen, baina, ezinean dira-eta, ez da posible izan. Beste askori ere egin nahi izango genien. Etorriko zaie txanda". Eta "gidoiak egitea gauza erraza izan da. Horiez asko idatzirik dut, etxekoturik ditut..."

Euskal Herriari dagozkion puntuei buruz zernahi idatzi duen idazle bipila da Martin Ugalde eta, gainera, tranparik eta makurrik gabeko "gizona".